

Beren jarduerak Gizarte-Zerbitzuetan garatzen dituzten Elkarteentzako Dirulaguntzen Emakida arautzeko Oinarriak.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak asoziazionismoa bultzatzen du gizartearen kohesioa eta herritarren partaidetza lortzeko metodo gisa, eta horregatik horrelako elkarreentzako dirulaguntzak aurreikusi ditu, beren oinarrizko funtzionamendua errazteko, eta halaber, irabazi asmorik gabeko elkarteek ingurunea hobetzen eta herri demokratiko baten balioak bultzatzen laguntzen duten jarduerak antolatzea ahalbidetzeko, horrek guztiak herritar orokorren bizi-kalitatea hobetzen laguntzen baitu.

Aurrekontuko baliabideen esparruan, eta 2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartutako Hernaniko Udalaren 2019rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasotakoa garatzearren eta bertan ezarritako printzipio orokorrak bermatzearren, irabazi asmorik gabeko auzo-elkartei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak erabaki zituen Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak.

OINARRI

ARAUTZAILEAK

1. artikulua.

Oinarri horiek irabazi asmorik gabeko Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten, edota onuradunak Hernaniko herritarrak direnean, elkartei diru-laguntzak eta laguntza publikoak lehiaketa bidez emateko prozedura orokorra arautzen dute, 2019. ekitaldirako; horren kudeaketa Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari dagokio eta 2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartutako Hernaniko Udalaren 2019rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoak dioenaren arabera erabaki dira.

Laguntza horien helburua da elkarten oinarrizko funtzionamendua erraztea eta herritar orokorren bizi-kalitatea hobetzeko egiten diren proiektu nahiz jarduerak bultzatzea.

2. artikulua.

Deialdi honetan diru-laguntzetarako aurreikusi den kopurua 28.245,00 eurokoa da, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen 2019ko aurrekontuko partida honen kontura: 1.0101.481.01.231.01.2019 «Diru-laguntzak: elkarteak Oinarrizko Zerbitzu Sozialak».

3. artikulua.

Legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako elkarte-erregistroan inskribatuta dauden elkarteek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzak, jarduerak Hernaniko udalerriko esparruan garatzen edo betetzen badituzte, edota beren zerbitzuak hernaniarrei eskaintzen badizkiete.

4. artikulua.

Dirulaguntza eskaera egiteko euskaraz edo elebrietan dagoen inprimakia erabili ahal izango da eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen Erregistroan entregatuko da.

Eskaera egin nahi duen elkarte edo entitatearen arduradunak eskari arautuaren lauki guztiak beteko ditu, izena, abizenak, helbidea, telefonoa, ordezkatzen duen entitatearen datuak eta emandako kopurua ordaintzeko bankuko kontua adieraziz. Titularren datuak behar bezala ziurtatuko ditu banketxeak.

5. artikulua.

Eskaera-orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da nahitaez:

- a) Eskaera egin duen entitateko arduradunaren NAN fotokopia.
- b) Urte honetan zehar egin dituzten edo egingo dituzten jardueren zerrenda.
- c) Lortutako beste diru-laguntza batzuen berri ematen duen zinpeko aitortpena.
- d) Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia, egokia bada.
- e) Elkarteen Erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- f) Betebehar fiskalak eta aseguru sozialak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- g) Aurkeztutako programaren memoria zehaztua. Hirugarren puntuak aipatzen diren puntuak zehaztu behar dira.
- h) Subentzionatua izan nahi den programaren aurrekontua.

Eskaera egiten duen elkarteak interesgarri irizitako dokumentazioa ere aurkez daiteke horrekin batera.

6. artikulua.

Aurreko deialdietan emandako diru-laguntzen justifikazioko memoria aurkezteke duen jarduera edo programa bati buruzko eskaerak ez dira aintzat hartuko.

Era berean, Hernaniko Udalarekin eta bere Erakunde Autonomoekin dituzten obligazioetan egunean ez dauden entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira aintzat hartuko. Ofizioz egiaztatuko da.

7. artikulua.

Eskaera-orriak edo horrekin batera aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioak akatsen bat balu edo osatu gabe baleude, hamar eguneko epea emango zaie interesatuei, egilesleak eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, aurkitutako akatsak zuzentzeko; epe hori igaro ondoren, akatsak zuzenduko ez balira, eskaerari uko egin diotela ulertuko da, eta ondorioz, prozedura artxibatuko da.

Ale bat eskatzailearen esku geratuko da, eta beste bat Sarrera Erregistroan; azken hori arduratuko da Zerbitzu Publikoei kopia helarazteaz.

8. artikulua.

Eskaerak aurkezteko hilabeteko epea izango da, deialdi hau Hernaniko Udalaren web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita. Ezarritako epeak nahitaez beteko dira, eta ez da salbuespenik egingo.

9. artikulua.

Aurkeztutako eskaeren izapideak egitea lehendakariari dagokio, eskaerak aztertu eta ebaluazioa egiteaz arduratuko baita honako irizpide hauen arabera: betiere aurkeztutako eskaeran jasoarazten badira:

- a) Entitate eskatzaileak herri mailan frogatutako jarraipena eta egonkortasuna.
- b) Udalak gizarte-zerbitzuak garatzeko duen urteko programarekiko lotura.
- c) Proposatutako programa edo jarduera betetzen onuradun hernaniarrak izango diren pertsonen zenbatekoa.
- d) Aurkeztutako programazioak herritar oroekiko izango duen zabalkundea.
- e) Taldearen jarraipena bermatutako duen arduradunaren izendapena.

10. artikulua.

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak.

Gizarte-zerbitzuen arloan:

- Hitzaldiak.
- Zabalkunderako urteko kanpainak. Azterketak.
- Formazio ikastaroen antolaketa.
- Biztanleriaren zenbait sektoreen aisialdia.
- Elkarteratzearen sustapena.
- Talde espezifikoek gizarteratzeraz zuzenduta dagoen populazioaren jarduerak sustatzeko ekintzak.
- Taldeekiko arreta osasun eta gizarte-zerbitzu arloaren barnean.
- Guztien onurarako diren ekintzak.

11. artikulua.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko lehendakariak eskaerak aztertu ondoren, eta egokia izanez gero dagokion txosten teknikoaren balorazioa egin eta gero, emakida-ebazpen bat egingo da horri buruzko erabakia hartzeko, eta bertan adierazita egongo da proposatutako eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa; horrez gain, zerrenda hori osatzeko kontuan hartu diren ebaluazio-irizpideak azalduko dira.

Emango den zenbatekoa guztira inoiz ez da izango baimendutako gastua baino handiagoa.

Erabakia hartzeko organo eskuduna Zuzendaritza Batzordea izango da, lehendakariak proposamena egin eta gero.

12. artikulua.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, onuradunak egingo duen jardueraren orokorraren kostua baino handiagoa izan, dela bera bakarrik, dela beste diru-laguntza batzuei batuta.

13. artikulua.

Eskaera egin duenari idatziz jakinaraziko zaio erabakia, eta arrazoiak azalduko dira; ebazpena aldekoa den kasuetan diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziko da, eta baita ere ordaintzeko modua, justifikazioa eta Oinarri hauek eskatzen dituzten gainontzeko baldintza eta betebeharrak.

14. artikulua.

Ebazpenak eman eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabete izango dira, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitu eta inolako ebazpenik eman ez bada, eskaera atzera bota dela ulertuko da.

15. artikulua.

Diru-laguntza emanez gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

—Diru-laguntza jaso duen jarduerak edo proiektuak garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan arazoitzea.

- Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzaitzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.
- Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.
- Diru-laguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera baten aldatetaren berri ematea.
- Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo diru-laguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.

16. artikulua.

Onartutako zenbatekoa izango da diru-laguntza gisa emango dena eta eskaera egin duen entitate titularrari bidaliko zaio; era berean, entitate horrek jardueren garapenari buruzko informazioa emateko konpromisoa hartuko du, horien jarraipena egiteko eta laguntzeko.

17. artikulua.

Diru-laguntza jarraian adierazita dagoen moduan ordaindu daiteke:

a) %70 diru-laguntza ematean.

b) Gainontzeko %30a ohiko kontuak aurkeztean eta, egokia bada, diru-laguntza jaso duen jarduera dokumentuen bidez ziurtatzean. Epea hurrengo urteko urtarrilaren 31n bukatuko da.

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko teknikariak arduratuko dira dokumentu horiek egiaztatzeaz, eta egokia bada, lehendakariak ados dagoela adierazi eta udalaren kontu-hartzaitzara bidaliko du espedientea.

Dena den, erabakian zehaztuko da ordainketa bakar batean edo zatika ordainduko den, eskatutako laguntzaren berezitasunen arabera

18. artikulua.

Emakida akordioa jakinarazten denetik gehienez ere 20 eguneko epean, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeak hitzarmen bat izenpetuko du dirulaguntza jasoko duten entitateekin, haien legezko ordezkariaren bidez, eta bertan honako arlo hauek jasoko dira:

- Garatuko diren jarduera edo programen xedea.
- Programa garatzeko forma, entitateak bereganatzen dituen eginbeharrak garbi adieraziz.
- Jarduerak edo programa betetzeko egutegia.
- Dirulaguntzaren kopurua eta hori ordaintzeko forma.
- Emandako dirulaguntza justifikatzeko forma.
- Garatutako programari buruzko txostenak eta memoria.

19. artikulua.

Diru-laguntzak dagokion ekitaldiaren barruan izango du justifikazioa, jarduera urte natural osoan zehar garatzen denean izan ezik; kasu horretan, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31ra zabalduko baita justifikazio-epea.

Entitate onuradunek ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko diote Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari:

- a) Egindako programa edo jardueraren memoria zehaztua.
- b) Subentzionatua izan den kopuruari dagokion gastuaren jatorrizko frogagiriak eta fotokopia konpultsatuak.
- c) Diru laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- d) Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.

Laguntza jasotzen duen elkarte edo erakunde bakoitza hartutako laguntzaren hainbateko fakturak aurkeztera beharturik dago, eta halaber, idazki bat, adieraziz eskabidean esandako asmoa bete duela.

Batez ere herri honetako Gizarte Zerbitzuen garapenean laguntzen duten irabazte asmorik gabeko Elkarrekin zerikusia duten zenbait kasu berezitan, eta salbuespen gisa, egindako jardunaren zinpeko aitortpen justifikatzailea onartu ahal izango da.

Betebehar horiek osatuko ez balira, onartutako dirulaguntza ez jasotzea ekarriko luke, eta aurrerantzean beste laguntzarik jasotzeko ezintasuna ere ekarri dezake.

20. artikulua.

Diruz lagundutako jarduera guztiei egiten zaien publizitateak, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen laguntza jaso duela adierazi beharko du.

21. artikulua.

Elkarte, talde eta eragileek beren jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzak eskuratzeko baldintza izango da herritar multzo euskaldunari zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki, ohar eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izatea.

Beste hizkuntza erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da.

22. artikulua.

Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko unean erabakitako obligazioen bat hautsiz gero, kasua berrikusiko da eta, egokia bada, diru-laguntza itzuliko da, diru-laguntzak emateko udal araudiak aurreikusitako eran. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, diru-laguntza eman zuen organoak eskatuta, eta emandako kopurua ezeztatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke horretarako arrazoiak azalduz. Edonola ere, prozeduraren izapideak egitean, interesatuak entzuna izateko duen eskubidea bermatuko da.

Hernani, 2019ko otsailaren 14a.

2019 urterako Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntza eskabidea

Espediente zenbakia:

ESKATZAILEA			
ERAKUNDEAREN IZENA			
HELBIDEA			
HERRIA		POSTA KODEA	
IFK-IFZ		POSTA ELEKTRONIKOA	
TEL.:		FAX:	
AGIRI AURKEZLEAREN IZEN-ABIZENAK			
NAN		TEL.:	
HERRIA	Hernani		
PROBINTZIA	GIPUZKOA	POSTA KODEA	20.120
HARREMANETARAKO PERTSONA			
NAN		TEL.:	
HERRIA			
PROBINTZIA		POSTA KODEA	

Eskatzen den dirulaguntza

--

Egitasmoaren izena

--

Eskatzaileak ziurtatzen du dirulaguntza jasoz gero, oinarrietako baldintzak eta eskakizunak beteko dituela, eta betetzen ez baditu jasotako kopurua itzuliko duela.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA: (X jar ezazu)

- Eskabide orria sinatua.
- Eusko Jaurlaritzako Elkartea eta Entitate Erregistroan izena emanda dagoenaren ziurtagiria.
- Elkarteen udal erregistroan inskribatuta dagoenaren ziurtagiria.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia.
- Eskatzailearen kontu korrontearen jabetza ziurtatzen duen agiria, banketxeak emandakoa, 3. eranskina.
- Urteko ekintzen programaren nondik norakoak eta aurrekontua (diru sarrerak eta gastuak), 1. eranskina.
- Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren nondik norakoak eta aurrekontua (diru sarrerak eta gastuak), 2. eranskina.
- Entitate eskatzailearen estatutuak, bazkide kopurua, kideak, kuotak...
- Instituzio, erakunde eta abarrei egindako dirulaguntza eskaeren edota jasotako kopuruaren zinpeko aitortpena.
- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundearen dokumentazioa jasotzeko hautatutako hizkuntza (4. eranskina).
- Eskaera egin duen entitateko arduradunaren NAN fotokopia
- Betebehar fiskalak eta aseguru sozialak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiriak.

Zuzendaritza organoen osaketa

Kargua	Izena	1. abizena	2. abizena	Tel.
Lehendakaria				
Idazkaria				
Diruzaina				

Hernanin, 2019ko(a)ren(a)n

Eskatzailearen sinadura

Lehendakariaren sinadura

4. eranskina

Erakundeko idatziak euskaraz jasotzea

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak bere funtzionamenduan euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginetan dabil azken urteotan. Hori dela eta, bai Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak barruko lana eta bai herritarrekin, elkarteekin, enprekin zein beste erakunde publikoekin dituen harremanak euskaraz izateko egitasmo batzuk ditu martxan jarriak.

Euskararen erabilera areatzeko egitasmoetako bat da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak euskaraz jaso nahi dituzten gizarte izaerako elkarteei horretarako aukera eskaintzea, betiere zuek hautatutako hizkuntzan atendituak izateko duzuen hizkuntza eskubidea kontuan hartuta.

Hori dela eta, eskertuko genizueke eskutitz honetan egiten zaizuen galderari erantzun eta guri bidaltzea, Sandiusterri kalea 1 helbidera. Aurrerantzean zuek hautatutako hizkuntzan jasoko dituzue Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak.

Harreman horiek euskaraz izatera animatzen zaituztegu.

Adeitasunez, ongi izan.

Hernani, 2019ko otsailaren 14a

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Lehendakaria

Marka ezazu X batez zuk egindako aukera:

- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak euskaraz jaso nahi ditut
- Erakundeko idatziak ele bietan jaso nahi ditut

Elkartearen izena:

Hernani, 2019ko-ren (a)

4. eranskina

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak euskaraz jasotzea

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak bere funtzionamenduan euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginetan dabil azken urteotan. Hori dela eta, bai Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak barruko lana eta bai herritarrekin, elkarrekin, enprekin zein beste erakunde publikoekin dituen harremanak euskaraz izateko egitasmo batzuk ditu martxan jarriak.

Euskararen erabilera areatzeko egitasmoetako bat da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak euskaraz jaso nahi dituzten gizarte izaerako elkarrekin horretarako aukera eskaintzea, betiere zuek hautatutako hizkuntzan atendituak izateko duzuen hizkuntza eskubidea kontuan hartuta.

Hori dela eta, eskertuko genizueke eskutitz honetan egiten zaizuen galderari erantzun eta guri bidaltzea, Sandiusterri kalea 1 helbidera. Aurrerantzean zuek hautatutako hizkuntzan jasoko dituzue Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak.

Harreman horiek euskaraz izatera animatzen zaituztegu.

Ongi izan.

Hernani, 2019ko otsailaren 14a

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Lehendakaria

Marka ezazu X batez zuek egindako aukera-

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak euskaraz jaso nahi ditut

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeko idatziak ele bietan jaso nahi ditut

Elkarrekin izena :

Hernani, 2019ko-ren **(a)-**